

Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Fiskalitatea, kirolariak eta asmakizuna

Jakina da kirolari gehienek euren aberria era sutsuan maite dutela eta edozer gauza egiteko prest daudela euren lurraldea salbatzeko, edo gutxienez, zergak ordaindu behar dituzten unera arte. Horiek horrela, honen aurrean egoera ezberdinak daude.

Lehenengo, enpresa bat sortu eta pertsona fisiko bezala tributatu beharrean pertsona juridiko bezala egitea. Ondasun eta diru-sarrera guztiak enpresaren bidez kudeatuta emaitza fiskalak ezin hobekak dira, eta enpresa honek galerak baldin baditu zeresanik ez... Baina badira beste batzuk, enpresak ordaindu behar dituen zergak gehiegizkoak direla uste badugu, beti dago aukera gure abertzaletasunaren baitan Monakon edota Suitzan gure egoitza jartzeko. Esan ohi den bezala diruak ez du aberririk eta kirolari batzuen moralitateak ere ez, baina tira. Mota honetako adibide asko izan dugu estatuan, eta gurean ere –izenik ez dut emango– izan dugu kasuren bat edo beste. Hortaz, ez pentsa arazo honen aurrean euskaldunok txertuak gaudenik.

Kontrako adibidea badago ere, alegia gure bandera etengabe musukatzen ez daudenak laguntzeko trikimailuak. Horrela, iragan garaian, kanpoko goi-exekutiboak erakartzeko –hain modan dagoen etorkin kualifika-



INIGO AZKONA



Esan ohi den bezala diruak ez du aberririk eta kirolari batzuen moralitateak ere ez



tuen argudioa– euren egonaldiaren lehenengo sei urterentzat %24ko tipo berezia asmatu zen, ohikoa den %48aren –orain zertxobait handiagoa– ordez. Noski, goi-exekutiborik ez da etorri baina zirrikitu legal ezin hobea ireki da kanpokoak diren kirol-izar distiratsua bereganatzeko. Adibide zehatz bat jartzearen, Cristiano Ronaldok %24a ordaintzen du bere errenta aitorpenean, *mileurista* batek ordaintzen duena gutxi gorabehera.

Ardura duten instituzioek esan dezakete, neurri hauen guztien bidez, kanpora joango ziren dirutzak edota etorriko ez zirenak mantendu edota erakarri egiten direla, eta hortaz, azken emaitza positiboa dela diruari begira. Fiskalitatean adituak direnen ustetan, gauzak ez dira hain automatikoak eta beste faktore askok eragiten du fiskalitatean eta honen bidez lortzen diren diru-kopuruetan, errealitatean adibide askok erakusten du hori. Gainera, argudio horiek enpresa batean sinesgarritasun apur bat gehiago izan dezakete, baina ez erabat salbuespen diren goi-mailako kirolariekin. Hortaz, hemen beste gauza batzuk daude jokoan.

Eta azkenik asmakizuna: ezetz asmatu emandako informazioarekin Cristiano Ronaldok noiz utziko duen Real Madril? ■



TXANDAN

Igor Estankona



Gaur esan dute berriro. Administrazioen arteko bikoizketak –hitza nork bikoiztu ote du?– aztertzen jarraitzen du Gasteizko Legebiltzarrak. Dirua gastatzen jarraitzen dute, beraz, harantza-honantzatan eta gasolinatan, garbian igual ezer ez ateratzeko. Inigo Aranbarriren *Hizlandia* baterako terminoa dirudi, *bikoizketak*, sano oraingoa da, ekonomikoa.

Baina benetan liluratuta naukana Idoia Mendia- ren eufemismo bat da. Buelbaka dabilkit, ezin burutik kendu. Funtzionarioen kidegoari aplikatuko dizkioten murrizketak ez ei dira eskubideen gainekoak,

Espektatiba

baizik eta espektatiben, esperantzen gainekoak. *Espektatiba*: ordutegi zentzuzko baten iguripena, lan eskaintza baten ilusioa, gaixoaldi-bajan orain arte aitortu zaien bezala kobratzeko itzaropena, erretiroaren ametsa...

Neure artean pentsatu dut sailburuek ere esperantza izango dutela ondo tratatuak izateko ospitalean, lehorrera ekar ditzaten urak eroanez gero, kudea ditzaten euren zergak artez, hezi ditzaten euren umeak eskola finetan, eta lagun ditzaten erortzen badira inoiz pobrezia-aren eta espektatiba falten atzarretan. ■

